

Marta Moreno, ametsak egi bihurtuz

Marta Moreno bidaia zale amorratua da. 24 urte ditu eta dagoeneko hiru hilabete eman ditu Perun kolaboratzaile bezala (ekainetik irailera bitartean) eta urtebete Irlandan *au pair* moduan. Gainera, bisita ugari dituen “Mis kilos por el mundo” blogaren sortzailea da.

Perura bidaia zela-eta, bloga abiatzea erabaki zuen Martak, familiarekin harremanetan jartzeko era bat izango zelakoan, baina espero baino bisita askoz gehiago jaso zituen: Peruko Caritas elkarteak irakurri, hemengo lagunek, ezagunek... sarrera asko! Gainera, komunikatzeko bidea izateaz gain, Martak bere bizi-penak, sentimenduak eta beste zenbait gauza adierazten ditu “Mis kilos por el mundo” blogean egun. Bere konplexuak gaintitzearen ondorioz otu zitzaion blogaren izena, Martak hainbat konplexu izan baititu pisua dela-eta, baina aurrera egiten jarraitu du eta horrek ez diola bidaiatzeko ametsa zapuztuko aitortu du.

Perura joateko beka lortu zuen eta Juditekin, 24 urteko erizain gasteiztarrarekin, batera ekin zion abentura honi. “Esperientzia gogorra izan da —aitortu du Martak—, baina errepikatze modukoa”. Bere eremuan petrolio isurketa bat egon zen eta horrek egoera larritu zuen bertako herrixketan: petrolio hodiak ibaia-aren azpitik doaz eta ura guztiz kutsatuta zegoen. Ezin zuten bertatik edan, ez ureztatu... Gainera, animaliak bertako ura edaten zuten, kutsatuta zeuden, eta ezin zituzten ehizatu.

Bertako komunitateek ez dute ur edangarririk, ez elektrizitaterik, ez isurbiderik. Higienea ez da batere ona,



horrela Martak eta Juditekin hiru hilabete eman zituzten 50 graduko tenperaturan, hezetasuna nagusi. Oihanean, tximino, krokodilo, suge eta mendiko arratoien artean; ahaztu barik, kutsatutako arrainak ere nonahi zeudela.

Garraiobide ohikoena itsasontzia da, eta komunitetara petrolio itasontziz iritsiz gero, bi orduz argia izan dezakete. Elikagai ohikoena *masatoa* da, eta *yuka* oihaneko oinarritzko jakia da, guxti janda asko asetzen duelako. Patata moduko fruta da, emakumeek murtxikatzen dutena, eta murtxikatzeko platerera botatzen dute hartzitu arte. Jaki hori eskainiz gero, begi txarrez ikusten da ezetz esatea.

Martak kolaboratzaile lanak egiten zituen bertan, eta herrikideekin zenbait ekintza, tailer eta dinamika burutu zituen. Kultura berriak ezagutu ditu eta uraren garrantziaz ere ohartu da. “Bertako jendeak asko daki, esperientzia asko daukate, nahiz eta askok ez jakin irakurtzen ezta idazten”, dio Martak. Egoera latzean bizi dira hala ere. Petroperu enpresak ura zein elikagaiak ematen dizkie komunitateei, baina ez da nahikoa, ume asko daudelako, familia ugariak baitira gehienak. Kasu horretan desnutrizioa saihesten ahalgintzen da Caritas eta formazio bat izan dezaten.

Armaia Arginzoniz



Probaleku 8, behea
Drogeteniturrri, 249 zkia.

uriarte asesores ✓
Aholkularitza fiskala
eta lege aholkularitza

Komentukoa 3 behea · Tel. 943 179 040 · Faxa 943 179 197
48260 · Ermua · Bizkaia